


## Parisko Hitzarmenean adostutako temperatura-igoeraren muga gainditu da

2024ko urriko azaleko airearen temperatura globala, batzaz beste, 1,65 °C altuagoa izan zen industrializazio-aurreko temperatura baino, eta, 15. hilabetea izan zen, 16 hilabeteko epean, zeinetan azaleko airearen batez besteko temperatura globala 1,5 °C baino altuagoa baitzen industrializazio-aurretik baino. Hain zuzen, muga hori ezarri zen Parisko Hitzarmenean, aurreikusiz hori gaindituz gero ondorio itzulezinak jasan zitzakeela planetak.



Temperatura globalaren igoera, industria-aurreko garaiarekiko (2024koa aurreikuspena da). ARG.: C3/ECMWF.

Copernicus klima-aldaketarako Europako Batasuneko zerbitzuak eman ditu datu horiek, eta baieztatu du ia ziurra dela 2024a izango dela inoiz izandako urterik beroena. Hori ez gertatzeko, urtea bukatu bitarteko batez besteko temperatura-anomaliak ia zerora erori beharko luke. ●

## Ondorengoak izateak uste baino energia gehiago eskatzen du

Pertsona batek ume bat izateko behar duen energia orain arteko aurreikuspenek kalkulatu dutena baino 24 aldiz handiagoa izan daiteke. Animalia ektodermoentzat —alegia, kanpoko energia-iturriak baliatzen dituztenentzat (esaterako, sugeentzat)—, energia-gastua lehen kalkulaturakoa baino 4 aldiz handiagoa da. Eta bi aldiz handiagoa itsas arrainenentzat.

Ikerketa hori egiteko, Australiako Monash Unibertsitateko ikertzaileek 1930–2000 bitartean gaiari buruz argitaratutako lanak bildu eta aztertu zituzten. 81 espezieren datuak lortu zituzten, hasi errotiferoak bezalako animalia mikroskopikoetatik eta gizakietaraino. Horrez gain, ikusita zeharkako energia-gastua askotan ez zela aintzat hartu, edo ez behar bezainbeste, ikerketa zehatzak egin zituzten gastu hori kalkulatzeko. Adibidez, haurdun dauden emakumeen gastu metabolikoa neurtu dute haurdunaldiaren hainbat fasetan.

Horrela, ohartu dira zeharkako gastua guztizko energia-gastuaren % 5–25 dela uste izan bada ere egiazko gastua askoz ere handiagoa dela. Horrenbestez, ikertzaileen esanean, egin duten lana baliagarria da jakiteko zenbat kostatzen zaion ugaltzea espezie bakoitzari. ●



Haurdunaldiaren gastua orain arte kalkulatu dutena baino askoz ere handiagoa dela ikusi dute ikerketa zabal batean. ARG.: Fezailc/Pixabay.